

Navarra XXI Nafarroa

Testu honek txupinazo bat izan nahi du hemen, Nafarroan, abiatzeko gure herriaren etorkizunari buruzko prozesu bat, eztabaidari eta herritarren eta jendartearen parte-hartzeari irekia.

Heldu den 2022an, abuztuan, Foru Hobetzeari buruzko Legeak 40 urte beteko ditu onetsi zenetik. Gure irudiko, herritarren beharrezko parte-hartzerik gabe onetsi zuten, Nafarroako biztanleriaren zati handi bat bazterrean utzita. Nolanahi ere, duen funtsezko gabezia demokratikoa da Nafarroa izan dela Estatuko komunitate historiko bakarra non bere estatus instituzionala ez den onetsi ezinbesteko erreferendum baten ondoren.

Baina, iraganari buruz baino orainaz eta etorkizunaz nahi dugu mintzatu. Azken urteotan ikusi dugu nola gure Parlamentuak onetsitako lege ugari errekurritu, eten eta baliogabetu dituzten estatuko organoek: doako osasun laguntza, koordainketa farmazeutikoa, kalamu klubak, energia sortzeari buruzko zerga, toki entitateen zorpetzea, OHZren ordainketa eklesiastikoa, haustura hidraulikoa, indarkeria polizialaren biktimak... Gauzak horrela, Nafarroaren autogobernuak eta subiranotasunak murrizketa handiak pairatu dituzte.

Alta, ez da hori bakarrik. Nafarroako gaurko lau biztanleetatik hiruk ez zuten parte hartu arau haren onespén prozesuan. Batzuk garai haietan sortu gabeak zirelako; beste batzuek orduan botoa emateko aski adina ez zutelako; beste batzuk beste toki eta lurraldeetatik gurera bere bizimodua gurekin partekatzerá etorriak zirelako. Horietako inork ezin izan du horri buruzko iritzia eman.

Halaber, jabetzen gara gaurko Nafarroaren eta 1982koaren artean dagoen alde handiaz. Orain jendarte feministagoan, laikoagoan, ekologistagoan eta irekiagoan bizi gara, egungo egoera ekonomiko, politiko eta sozial andeatuarekin oso kezkatuak. Arrazoi hauengatik guztiengatik tenorea da defizit eta desfase demokratiko honi aterabidea aurkitu eta urrats sendoak emateko, Nafarroak eskubide gehiago eta askatasun handiagoak erdietsi ditzan.

Nafarroarendako etorkizun instituzional eta soziala askotarikoa izan daiteke, gure jendarte anitza baita eremu politikoari dagokionez. Hasteko, beraz, proiektu guztiak dira zilegi bezain onargarriak. Denak bat izan ezik, hots, gure herriari, modu autonomo eta subiranoan, bere oraina eta bere geroa demokratikoki erabakitzeke ahalmena ukatzen diona.

Tenorea dugu, bada, denon artean eraikitzeko kontraera herrikoi bat, duela 40 urte, Foru Hobetzea azpikeriaz nola gauzatu zuten plazaratzeko eta lau haizetara oihukatzeko Nafarroak bere etorkizunari buruzko eztabaida ireki behar duela eta horretarako prest dagoela. Gure ustez, eztabaidak bermatu beharko du herritarren eta eragile kultural, sindikal, sozial, politiko eta instituzionalen parte-hartzea.

Txupinazoa jaurtikia da. Orain hitzaren, parte-hartzearen eta erabakitzearen besta honetan parte hartzera gonbidatzen zaitugu.

Navarra XXI Nafarroa

ATXIKIMENDUAK

Almingol Muñoz, Txutxin	Iruñea
Alonso Aparicio, Daniel	Estellerria
Alonso Fourcade, Jon	Iruñea
Alonso, Esther	Iruñea
Anso Ríos, Yolanda	Undiano
Anton Murgiondo, Antón	Iruñea
Albanese Weiss, Paolo	Sartaguda
Alvarez, Amaia	
Aiesa, Eguzkiñe	Iruñea
Arraiz Gaintza, Maria	Estellerria
Arregi Mendia, Esther	Altsasu
Arregi Mujika, Gurutze	Altsasu
Artieda Urrestarazu, Isabel	Burlata
Arregi, Sagrario	Gares
Arruitz, Mikel	Iruñea
Astiz Goldaraz, Pako	Barañain
Azazeta Villareal, Aingeru	Altsasu
Alvarez, Iratxe	Iruñea
Arangibel Reinaldos, Saul	Antsoain
Ataun Urricelqui, Enrique	Lodosa
Balentzia Mendia, Fermín	Tafalla
Basabe Gutiérrez, Zaloa	Iruñea
Barber Del Rio, Xabier	Iruñea
Biurrun Urriza, Zelaida	Eskaroze
Bosque Ezker, Gloria	Iruñea
Burguete Artozqui, Juan Ramón	Irunberri
Contreras López, Ramón	Olatz
Compains Silva, Joseba	Iruñea

Costa De La Calle, Iruñea	Iruñea
Chueca Intxusta, Josu	Iruñea
Cuadra Lasarte, Sabino	Iruñea
Fernández Guillen, Angel	Iruñea
De la Torre Landera, Iraia	Azagra
Diaz Esarte, Xabier	Eskaroze
Diez Diaz, Isabel	Iruñea
Donlo Becerril, José Antonio	Altsasu
Donlo Becerril, Eusebio	
Esparza Zabalegi, Joxemari	Tafalla
Egaña Descarga, Miren	Iruñea
Eguillor Garcia, José Mari	Burlata
Ekiza Zamora, Unai	Mutilva
Eraso Azkona, Maitane	Estellerria
Erdozain Beroiz, Patxi	Iruñea
Erdozain, Maribi	
Eslava Vidondo, Isidoro	Irunberri
Eslava, Dori	Irunberri
Etxeberria Zudaire, Lourdes	Olatz
Etxeberria Iztueta Auza, Puri	
Etxalar Azpirotz, Alfontso	Larraun-Lekunberri
Etxalar Martinez, Elena	Estellerria
Etxeberria, Jesus	Iruñea
Galarza Zelaia,	Altsasu
Galdeano, Santos	Estellerria
Gorostiaga Retuerto, Marilo	Iruñea
Goiena Agirre, Gustabo	Uskarres
Goinetxe Etxebere, Jesus M ^a	Amaiur
Goñi, Elena	Iruñea
Huarte Altzueta, Mikel	Iruñea
Igeltz, Luis	Lakuntza
Iriarte, Expe	Iruñea
Itoiz Jimenez, Julia	Iruñea
Irigoien Goñi, Victor	Zizur
Jimenez, Irati	Atarrabia
Juaniz, Juanito	Etxauri
Lacuey, Endika	Iruñea
Luquin Etayo, Angel	Iruñea
Larunbe Arretxe, Lurdes	Barañain
Mangado Aranda, David	Sesma
Mendia, Ion	Gares
Mendibil, Jesus	Iruñea
Merino Unzueta, Amaia	Iruñea
Miranda García, Enrike	Undiano

Morales Horrillo, Ani	Iruñea
Moreno Suescun, Iñaki	Iruñea
Murua Ruiz De Gauna, Jose Angel	Iruñea
Olo Gorriti, Txuri	Iruñea
Osta Delgado, Koldobi	Iruñea
Otxoa Barricarte, Karlos	Iruñea
Olite Cambra, Marisa	Iruñea
Oroz, Pedro	Iruñea
Pagola, Pepa	Iruñea
Pérez Ayerra, Kamino	Iruñea
Perez Saragueta, Aitziber	Mezquiritz
Pérez Salvatierra, Jesús	Iruñea
Ramos Holgado, Emiliano	Altsasu
Recalde Eseverri, Ana	Ezkarotze
Rodríguez Sáiz, Fermín	Iruñea
Rubio Mendiluze, Josu	Altsasu
Sagasti Lacalle Maria, Jose	Estellerria
Ruiz Gárriz, Aurelia	
Saralegi Segura, Rosa	Iruñea
Sanchez, Xabier	Iruñea
Serrano Torres, Hortentsi	Iruñea
Soto Nolasko, Mikel	Iruñea
Urrutia Orella, Josu	Burlata
Urrutia Jauregi, Patxi	Amaiur
Unamuno Asarta, Javi	Altsasu
Unzue, Blanca	Iruñea
Urzelai Agirre, Peio	Arbizu
Urra Markotegi, Ramiro	Estellerria
Urzainqui Zozaya, Mercedes	Iruñea
Velasco Fleta, Mentxu	Iruñea
Villalobos Bergasa, Javier	Iruñea
Zabalza Goikoetxeandia, Piru	Iruñea
Zabala Gonzalez, Begoña	Iruñea
Zabalza, Maite	Iruñea
Zamora Aznar, Patxi	Zizur Nagusia
Zaldúa Larraza, Ane	Arbizu
Zubillaga Auza, Presen	Olatz
Zubiria Galarza, Joakina	Altsasu